

---

## **PROPOSAMENA, ALTZAKO KIROLDEGI BERRIAREN INGURUAN AMIANTOZ KUTSATUTAKO LURREN PRESENTZIARI BURUZKO BATZORDE EZ- IRAUNKOR BAT SORTZEKO**

Jon Insausti Maisterrena EAJ udal taldeko bozeramaileak eta Ernesto Gasco Gonzalo PSE-EE Donostiako Sozialistak udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 90, 91 eta 148. artikulua oinarri, honako proposamen hau aurkezten dute, Altzako kiroldegi berriaren inguruan amiantoz kutsatutako lurren presentziari buruzko **batzorde ez-iraunkor bat sortzeko**.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Altza auzoan kiroldegi berri bat eraikitzea izan da udal honen lehentasunetako bat. Aurreko legealdian esleituta, gaur egun, eraikuntza-lanak normaltasunez gauzatzen ari dira, aurrez kutsatutako lurak deskontaminatu eta tratatu ondoren, epeak aurreikuspenen arabera betez.

Bestalde, aurtengo udan, Larresko parkea inauguratu da, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak emandako jarraibideen arabera lurak egokitzeko prozesu bat gauzatu eta gero, han ere aurkitu baitzen amiantoa. Orain, garaia da ibar horren ekialdean geratzen diren lurzorua lehengoratzeko lanekin jarraitzeko, 4. itema gisa identifikatuta baitaude.

Udalaren sailen arteko batzorde bat lanean ari da, Eusko Jaurlaritzarekin batera, lur horien tratamenduan. Hala ere, gure iritziz, komeni da udal taldeei eta herritarrei jakinaraztea zer kutsadura-foku dauden eta zer arazo eman ditzaketen, bai eta tratatzeko eta arazoa konpontzeko zer egin behar den ere.

---

## ALTZAKO KIROLDEGI BERRIAREN INGURUAN AMIANTOZ KUTSATUTAKO LURREN PRESENTZIARI BURUZKO BATZORDE EZ-IRAUNKOR BAT SORTZEKO PROPOSAMENA

### 1. Xedea:

Larresko ibarraren ekialdean (4. ITEMa), garai bateko baratzen lursailean, amiantoz kutsatuta dauden lurak lehengoratzeko lanak aztertzea, kontrolatzea eta horien segimendua egitea.

Prozesua gardena izatea eta herritarrek horren berri jakitea sustatzea: batzordeak garrantzi handia emango die Altzako talde eta herritarrei kasu egiteari eta prozesua nola gauzatzen ari den etengabe jakinarazteari.

**2. Kideak:** udal talde bakoitzeko kide bat, boto haztatua duena.

**3. Iraupena:** 18 hilabete.

**4. Maiztasuna:** gutxienez hiru hilean behin bilduko da.

Donostia, 2019ko urriaren 4a

---

Jon Insausti Maisterrena  
EAJ udal taldeko zinegotzia

Ernesto Gasco Gonzalo  
PSE-EE udal taldeko zinegotzia